


PAMIELA  
argitaletxea

Kalandraka  
amets egiteko liburuak®



# Dinosauro ametsak



Testua: Allan Ahlberg

Irudiak: André Amstutz

Itzulpena: Manu López Gaseni

Album irudiduna. Gaur egungo klasikoak

Gaiak: beldurrezko eta umorezko ipuina, eskeletoak, dinosauroak, pertsonaia fantastikoak, Halloween, gaua eta ametsak.

IBIC: YBC (Album iruidunak) / YFQ (Umorezko kontakizuk [haur/gazte])

5HH (Halloween)

Kartoizko azala | 21,2 x 27,5 cm. | 32 or.

Salneurria: 16,00 €

ISBN: 978-84-9172-344-8

HIZKUNTZA HAUTAN ERE: GAZTELANIA, GALIZIERA, KATALANA ETA PORTUGESA

ISBN: 978-84-9172-344-8



**Kale ilun-ilun batean etxe altu-altu bat dago.  
Etxe altu-altuan soto ilun-ilun bat dago.  
Soto ilun-ilunean ohe eroso-eroso bat dago.  
Eta ohe eroso-erosoan... hiru eskeleto daude, ametsetan.**

Erritmoz eta doinuaz jantzitako formula horren bidez hasten da eskeleto jostarienen abentura bizi-bizi berria. Oraingoan, dinosauroen hezurdura bitxi batzuek jazartzen dituzte ametsetan, harik eta txakur-eskeleto ausartak amaiera izugarri eta dibertigarria eragiten duen arte.

*Eskeleto barregarriak* eta gero, Pamielak eta Kalandrakak Allan eta Jane Ahlberg bikoteak 80ko hamarkada sortutako sail klasiko horretako beste album bat berreskuratu eta argitara ekarri dute.

Egile berberenak:



16,00 €

ISBN: 978-84-9172-159-8




## Allan Ahlberg

Idazle bihurtu aurretik Lehen Hezkuntzako maisu aritu zen. Umeentzako 100dik gora liburu argitaratu ditu, haietarik asko bere emazte Janet-ekin batera. Biek jaso zituzten, besteak beste, Kate Greenaway domina edo British Book Award delako saria. Haien testuak, gatzez gainezka, gai dira ohiko egoerak ohiz kanpoko bihurtzeko. Haien sortutako lanik ezagunenetako batzuk «The Jolly Postman» edo «Eskeleto barregarriak» dira, bigarrena lehendik euskaraz argitaratua.

## André Amstutz

Artea eta diseinua ikasi zituen Brighton School of Art delakoan. Animazio-proiektu garrantzitsu batzuetan lan egin zuen, hala nola «Bambi» edo «Edurnezuri» (Disney). 1950eko hamarkadan arte-zuzendari aritu zen publizitate-agentzia handi batzuetan, eta gero haurrentzako liburu arrakastatsuak ilustratu zituen, haietarik batzuk Allan eta Janet Ahlberg bikoteak idatzitakoak.




# Dinosauro ametsak



Kale ilun-ilun batean  
etxe altu-altu bat dago.  
Etxe altu-altuan  
soto ilun-ilun bat dago.  
Soto ilun-ilunean  
ohe eroso-eroso bat dago.  
Eta ohe eroso-erosoan...



... hiru eskeleto daude, ametsetan.  
Eskeleto handia dinosauroekin amets egiten ari da.  
-Banekien dinosauroak lasterka egiteko  
gai zirela -dio (bere ametsean)-.  
Baina ez nekien irristailu gurpildunik zutenik!



... hezur pila!



Auskalo zergatik  
(gogoan izan, amets bat da hau),

eskeleto handiak  
eta eskeleto txikiak

berreraiki egin dituzte  
dinosauro-hezurak.

Eta munduan sekula ikusi den  
dinosaurorik handiena egin dute...



... eta haien  
atzetik hasi da!